

Euskaltzaindiak 2011. urtean onartutako arauak

Euskaltzaindiak 2011. urtean zehar bost arau onartu ditu. Arauak Exonomastikari (lau arau) eta Onomastikari buruzkoak dira, Euskaltzaindiaren webgunean daude guzti guztiak, <http://www.euskaltzaindia.net/arauak> helbidean.

Xehetasunak, hona hemen:

Exonomastikari buruzko arauak

Exonomastika batzordeak landutako eta proposatutako lau arau argitaratu ditu Euskaltzaindiak 2011n, lauak ere kanpoko leku-izenei buruzkoak.

2010ean Europako toponimia fisiko-politiko aski modu xehean arautu ondoren, Europatik kanpoko toponimiari lantzea ekin zion Exonomastika batzordeak 2011n. Hauek dira emaitzak:

162. araua: Anatoliako eta Hego Kaukasoko toponimia

Gaur egungo Turkia, Azerbaijan, Georgia eta Armenia estatuetako leku-izen nagusiak jasotzen ditu arauak; guztira, 57 leku-izen. Euskarazko grafia arautua emateaz gainera, jatorrizko grafia, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko grafia ere eskaintzen da.

Turkiera nahiz azerbaijanera hizkuntzetako grafema batzuekin zenbait gorabehera gertatzen dira. Horregatik, toponimo-zerrendarekin batera, eta haren osagarri, azalpen bat erantsi zaio aruari, irizpideak zehaztearren.

Onarpen-datak: 2010eko abenduaren 17an, Zarautzen (Turkiako eta Azerbaijango toponimia). 2011ko urtarrilaren 28an, Donostian (Georgiako toponimia). 2011ko otsailaren 25ean, Bilbon (Armeniako toponimia).

163 araua: Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak

Hego Kaukasoko toponimia aztertzean (162. araua) heldu behar izan zion Euskaltzaindiak georgieraren eta armenieraren transkripzioaren gaiari. Gaiaren azterketa zabala eta xehea eginda, bi alfabeto horietan idatzitako izenak euskarara aldatzeko sistemak finkatu ziren, eta sistema horietako irizpideak aplikatu ziren arau hartan, ohiko irizpideez gainera, Armeniako eta Georgiako leku-izenen euskarazko ordainak emateko. Transkripzio-sistemok, dena den, ez dira leku-izenetarako bakarrik. Berdin-berdin erabil daitezke, adibidez, pertsona-izenetan ere. Horiek horrela, Euskaltzaindiak egoki iritzi dio egindako azterketa-lana eta hartutako irizpideak aparteko arau batean argitaratzeari, toponimia-arauan agertzen ez diren Georgiako eta Armeniako gainerako leku-izenak, baita bi estatu horietako pertsona-izenak ere, euskarara nola transkribatu behar diren zehazteko.

Transkripzio-proposamena lantzeko, Exonomastika batzordeak Natela Sturua georgiar euskaltzain urgazlearen eta Vahan Sarkisian armeniar oho-rezko euskaltzainaren laguntza izan zuen.

Arauak, bi hizkuntzen alfabetoak erakustez eta grafema bakoitzaren ahoskeraren berri ematez gainera, bi hizkuntza horien erromanizazioari buruzko informazio xehea ematen du. Nazioarteko transliterazioak eta erdara nagusietako transkripzio praktikoak eskaintzen ditu, eta euskararako transkripzio praktikoa ematen du, euskararen sistema grafiko-fonologikoa kontuan hartuta eginda. Hainbat adibide ere ematen dira, transkripzioaren aplikazioa erakustearren.

Onarpen-datak: 2011ko urtarrilaren 28an, Donostian. 2011ko otsailaren 25ean, Bilbon.

164. araua: Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia

Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrika osoko leku-izen geografiko, politiko eta historiko nagusien euskarazko ordainak ematen ditu arauak. Guztira, 320 leku-izen biltzen ditu, estatu eta lurralde hauetakoak: Aljeria, Arabiar Emirerri Batuak, Bahrain, Egipto, Irak, Israel, Jordania, Kuwait, Libano, Libia, Maroko, Mendebaldeko Sahara, Oman, Palestina (gaur egungoa nahiz historikoa), Qatar, Saudi Arabia, Siria, Sudan, Tunisia eta Yemen. Bakoitzean, euskarazko izenaz gainera, jatorrizko izena (eta, arabieraren kasuan, transliterazio akademikoa), gaztelaniazko izena, frantsesezko izena eta ingelesezko izena ematen dira.

Onarpen-datak: 2011ko martxoaren 25ean, Donostian (Siriako eta Libanoko toponimia). 2011ko maiatzaren 27an, Donostian (Irak, Jordania eta Egiptoko toponimia). 2011ko uztailaren 22an, Bilbon (Libia, Tunisia eta Aljeriako toponimia). 2011ko irailaren 30ean, Bilbon (Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia). 2011ko urriaren 28an, Donostian (Palestinako eta Israelgo toponimia). 2011ko azaroaren 25ean, Bilbon (Arabiako eta Sudango toponimia).

165 araua: Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema

Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako toponimia aztertzean (164. araua) heldu behar izan zion Euskaltzaindiak arabieraren transkripzioaren gaiari. Gaiaren azterketa zabala eta xehea eginda, alfabeto horretan idatzitako izenak euskarara aldatzeko sistema finkatzeko. Transkripzio-sistema, dena den, ez da leku-izenetarako bakarrik. Berdin-berdin erabil liteke, adibidez, pertsona-izenetan ere. Horiek horrela, Euskaltzaindiak egoki iritzi zion egindako azterketa-lana eta hartutako irizpideak aparteko arau batean argitaratzeari, leku-izenen arauan (164. araua) agertzen ez diren arabieraren eremuko gainerako leku-izenak, baita lurralde horietako pertsona-izenak ere, euskarara nola transkribatu behar diren zehazteko.

Transkripzio-proposamena lantzeko, Exonomastika batzordeak Miren Lourdes Oñederra fonologian aditu eta euskaltzain osoari eta Zeinab

Shawky Sayed Mohammed EHUko arabierazko irakaslearen laguntza izan zuen.

Arabiera hizkuntzaren eta arabiar alfabetoaren hainbat jakingarri emateaz gainera, arauak arabieraren grafema bakoitzaren ahoskera erakusten eta erromanizazioari buruzko informazio xehea ematen du. Nazioarteko transliterazioak eta gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana eta katalanaren transkripzio praktikoak eskaintzen ditu, eta euskararako transkripzio praktikoa ematen du, euskararen sistema grafiko-fonologikoa kontuan hartuta eginda.

Onarpen-data: 2011ko maiatzaren 27an, Donostian.

Onomastikari Buruzko Araua

166. araua: Euskal Herriko ibaiak

Euskal Herriko banaketa administratiboari dagozkion zenbait leku-izen nagusi arautu ondoren, beste izen geografiko batzuk arautzeari ekin dio Euskaltzaindiak, oraingo honetan ibai izenei. Izan ere, zenbait erabiltzaile estrategikorengandik benetako premia dagoela ikusita, gizarte eskaera horri erantzun nahi izan dio Akademiak arau honekin.

Lehenik eta behin, kartografia modernoan laguntzaz, ibai nagusien haultespen lana egin behar izan da eta jarraian historian zehar izan dituzten izenak eta gaur egungo erabileran ematen zaizkienak ere aztertu eta finkatu dira. Euskaraz zer-nolako erabilera izan behar duten erabakitzea da Euskaltzaindiaren egitekoa, ahaztu gabe azken xedea araututako izen horiek mapetan, aldizkarietan, liburuetan eta hedabide guztietan pixkaka-pixkaka islatzearekin batera, izenen eredu jasoak gizarteratzea dela.

Gai honek duen izaera bereziagatik zerrenda hutsak ematea aski ez dela koan, aurkezteko modua ere egokitu nahi izan da arau honetan. Aztertze lanak modu ordenatuan egin ahal izateko, ibaiak bederatzi zerrenda nahiz mapatan sailkatu ziren eta emaitzan ere, zerrenda alfabetikoaz gain, aipatutako sailkapen hori eta zerrenda bakoitzari dagokion mapa eskematikoa ere

eskaintzen dira. Antolatzeko irizpidea geografikoa izan da gehienbat, ahal izan den neurrian arrazoibide politiko-administratiboak alde batera utziz. Honako hauek dira, sailkapeneko zerrendak eta mapak:

1. Bizkaiko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak (denera 38).
2. Gipuzkoako kostaldean itsasoratzen direnak (59 ibai).
3. Lapurdiko kostaldean itsasoratzen direnak (91 ibai).
4. Logroño baino gorago Ebron isurtzen diren ibaiak (40).
5. Logroñotik behera Ebron isurtzen diren ibaiak Egaraino (36).
6. Aragoi ibaiaren goiko artoa Onsellaraino (45 ibai).
7. Aragoi ibaiaren beheko artoa, Arga salbu (36 ibai).
8. Arga ibaiaren artoa (56 ibai).
9. Aragoi ibaia baino beherago Ebron isurtzen direnak (13 ibai).

Azkenik, inguruko hizkuntzetan izaten ahal duen erabilera eta aplikazioa kontuan hartuz, euskaraz gain, gaztelaniaz eta frantsesez ere eskaini da 166. arau hau Euskaltzaindiaren webgunean.

Onarpen datak: 2011ko irailaren 30ean, Tafallan.